

OROZKON HERRI MAILAN ETA UDAL BARRUAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANAK METODOLOGIA PROPOSAMENA

GAURKO BILERAREN GAIORDENA

Bilera berari dagokionez, ondoren zehazten den gai ordena eta denbora banaketa izatea aurreikusi da.

Gaia	Hasi	Bukatu
Kokapena	18:00	18:20
Egutegia	18:20	18:40
Herritarrei zabaltzeko euskarriak	18:40	19:00
Diagnostikoa	19:00	20:00

BILERAREN KOKAPENA

Ondorengo dokumentuan 2013-2015 tartean Orozkon euskara arloko plangintza osatzeko oinarriak eta metodologia jaso dira. Ariketa hori egiteko, laupabost bilera egitea aurreikusi da. Bileratik bilerara tarte luze samarra ikustea aurreikusten da, bertan esandakoaz hausnartzeko debora egon dadin. Hala ere, datozen urteotan garatu nahi den plana ahalik eta herritar gehienentzako diseinatzeko asmoa dagoenez, berau euskarri desberdinen laguntzaz osatzeko aukera mahaigaineratzen da: inkestak, inguruko artean eta elkarteetan aztertzea...

Amaitzeko, eta bileretan egingo dugun denborari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, komenigarria izango da bilera aurretik jasoko duzuen dokumentua irakurria eta bertan agertzen diren alderdiak aurrez ahalik eta landuenak eta hausnartuenak izatea.

EGUTEGIA

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
	1. batzarra: kokapena, egutegia, euskarriak diagnostikoa	Diagnostikoa herriratu eta osatu	2. batzarra: diagnostikoa osatu, helburu nagusia eta estrategikoak	Helburu nagusia eta estrategikoak herriratu eta osatu	3. batzarra: helburu nagusia eta estrategikoak osatu, erronkak, eragileak, oinarria

Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Erronkak, eragileak eta oinarria herriratu eta osatu		4. batzarra: plana aztertu, aldatu beharrekoa aldatu eta oniritzia eman	Plana herrian aurkeztu	Plana udalak onartu	5. batzarra: 2013ko helburuak, ekintzak eta mugarriak

EUSKARRIAK

Batzarrean esandakoekin atalez ataleko proposamenak aterako dira: diagnostikoari dagokionez, lan-esparruei, helburuei... Hori horrela, proposatutakoa herritarren artean zabaltzen ahaleginduko gara, interesa duenak proposamena egin eta dokumentua osatuagoa gera dadin.

Euskarri posibleak: inkesta banatu betetzeko, udal boletina, udal web orrian inkesta sartu, elkarteetako/ alderdietako/ eskolako batzarretan komentatu eta iradokizunak jaso, inguru hurbilean zabaldu eta iradokizunak jaso, gaztetxokoan komentatu...

ABIAPUNTUA: DIAGNOSTIKOA

Ez da asmoa euskararen egoeraren inguruko diagnostiko exhaustiboa egitea. Datozen urteetako Orozkoko Udalerrian garatuko den euskara arloko estrategia zehazteko egun aintzat hartu beharreko faktore nagusiak identifikatzea, baizik.

Horretarako, oinarrizko AMIA matrize bat osatuko da. Berau osatzeko baliagarri izango direlakoan hona hemen hainbat hausnarketarako galdera:

- Nolako da etxeko erabilera gure udalerrian? Euskaldunek euskaraz egiten dute etxean?
- Gurasoek seme-alabei transmititzen diete euskara?
- Herritarren artean euskararen ezagutza gora doa, ala behera?
- Dakitenek erabiltzen dute euskara? Eta, ez dakitenek, ikasteko beharizanik sumatzen dute?
- Kanpotik datozenei azaltzen zaie nora datozen? Zein den bertoko hizkuntza? Badago harrera planik?
- Umeek euskaraz ikasten dute eskolan?
- Umeek euskara erabiltzen dute eskolan? Eta eskolatik kanpo?
- Tabernetan zein da hizkuntza nagusia? Aukerarik badago euskaraz egiteko? Eta dendetan?
- Enpresa munduan erabiltzen da euskara?
- Zertarako batzen dira herritarrak? Tabernaz taberna ibiltzeko? Ikastaroetan parte hartzeko?
- Gaztetxoak non batzen dira? Bertan euskara erabiltzen da? Eta gazteak? Eta helduak?
- Elkarteek indarra dute Orozkon? Zein da erabiltzen den hizkuntza? Badute erabilera planik?
- Zein hizkuntzatan eskaintzen dira ikastaroak Orozkon? Zein adin-tarteri zuzenduta daude?
- Zein da kultur ekitaldien hizkuntza? Eta kirol ekitaldiena? Nork antolatzen ditu?
- Zein kirol talde dago Orozkon? Zein da bertako hizkuntza nagusia?
- Eskolaz kanpoko jarduerarik badago? (umeei zuzenduta) zein da monitoreek erabiltzen duten hizkuntza?
- Zein da tokiko hizkuntzaren egoera? Idatzizkoa, ahozkoa...
- Erljio-jardueretan zein hizkuntza erabiltzen da? (elizkizunak, erlijioa...)
- Zeintzuk dira dauden komunikabideak eta euren hizkuntza?
- Zeintzuk dira komunikabide irakurrienak? Erosienak?
- Zein da KZgunearen hizkuntza-egoera?
- Zein da udal langileen euskara maila? HE...
- Euskaldunek euskaraz egiten dute? Ez dakitenek beharizanik ikusten dute?
- Zein da udal hautetsien euskara maila? Eta erabiltzen duten hizkuntza? (batzordeetan, plenoan...)
- Udalak herritarrekin euskara erabiltzen du ahoz? Eta idatziz?
- Udalak gainontzeko administrazioekin euskara erabiltzen du ahoz? Eta idatziz?

- Udal hautetsien artean kontzientziario maila zelakoa da? Eta udal langileen artean? Eta herritarren artean?
- Hizkuntza irizpideak onartuta daude? (diru-laguntzetan, kontratazioetan, obretan...) Baiezkoa balitz, aplikatzen dira?
- Udalak barne harremanetan euskara erabiltzen du? Udal hautetsiak-langileak (ahoz / idatziz)
- Euskaraz egiten diren idatzien sortze hizkuntza zein da?
- Itzulpenak zein hizkuntzatik zein hizkuntzara egiten dira?
- langileen prestakuntza dela-eta, zein hizkuntzatan eskaintzen zaie?
- Aplikazio informatikoak zein hizkuntzatan daude? Zein hizkuntzatan erabiltzen dira?
- Udal webgunearen hizkuntza zein da? Lehenetsita dago euskara?
- Udalak argitalpenik ateratzen du? Zein hizkuntzatan? Euskara lehenetsita?
- Zelakoa da udal barruko hizkuntza paisaia? Eta kanpokoa?
- Herrian zein da euskara dela-eta kontzientziario maila? Badago kontzientziatutako jende aktiborik?
- Euskara lehenetsiz gero herritarren artean aldeko erreakziorik sortzea aurreikusten duzue? Eta kontrakorik? Eta udal langileen artean?
- Zein da herritarren normalizazioaren inguruan duten ikuspuntua?
- Gaur egungo diskurtsoak (euskarazko elebitasuna, euskara lehenestea, hizkuntza ekologia...) ezagunak dira herrian?
- Zeretik hasten gara?
- Herriko euskaltzaleak kohesionatuta daude?
- Arnasgunerik badago Orozkon?
- Hizkuntza eskubideen inguruan herritarrak kontzientziatuta daude?

AMIA osatzeko esparru desberdinak hartu beharko lirateke kontuan: Familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, gune euskaldunenak, enpresa mundua, aisia eta kirola, liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista, interneti bidezko komunikabideak), informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

AHULGUNEAK (barne- faktoreek eragindakoak)	MEHATXUAK (kanpo- faktoreek eragindakoak)
(1) Hizkuntza eskubideen inguruan kontzientziario falta (2)	(1) Euskara lehenetsi ahala erdaltzaleen erreakzioak datoz. (2)
INDARGUNEAK (barne-faktoreek eragindakoak)	AUKERAK (kanpo-faktoreek eragindakoak)
(1) Herri mailan ezagutza maila nahiko altua (%...) (2)	(1) Hizkuntza ekologiaren diskurtsoa indarra hartzen ari da (2)

AMIA azterketa osatzerakoan, hainbat faktore azpimarratu daitezkeen arren, gure estrategia zehazteko garaian eragin nabarmenena dutenak azpimarratzen saiatuko gara. Horregatik, faktore ugari identifikatzeko eta zerrendatzeko ariketa baino, faktore nagusi

gutxi batzuk azpimarratzeko ariketa da egingo dena: hortik aterako ditugu gure norabidea markatuko duten erronkak/helburuak